



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERREENTERIAKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Iragarkia

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Elkarbizitzarako eta Gizarte ekintzako aholku kontseiluaren arautegiari, onartutako iradokizunaren ondorioz emandako aldaketak jasotzen dituen testuaren arabera.

Aipatutako erabakiari jarraiki, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro ondoren, erabaki honen testu osoa eta araudiaren testu osoa argitaratuko da jendeak jakin dezan eta bere ondorioak izan ditzan.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: euskal herriko auzitegi nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekur-tso jartzeari utzi gabe.

ERANSKINA

Elkarbizitzarako eta Gizarte Ekintzako Aholku Kontseiluaren Araudia.

Aurkibidea.

Zioen azalpena.

Atarikoak.

1. artikulua. Eratzea eta izaera.

2. artikulua. Helburua.

3. artikulua. Funtzioak.

I titulua. Kontseiluaren organoak.

4. artikulua. Osaera.

5. artikulua. Kontseiluaren batzarra: osaera eta izendapenak.

6. artikulua. Karguak berritzea.

7. artikulua. Kide izaera galtzea.
 8. artikulua. Hutsuneak.
 9. artikulua. Lehendakaritzaren funtzioak.
 10. artikulua. Idazkaritzaren funtzioak.
 11. artikulua. Lan Batzordeak.
 12. artikulua. Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.
- II titulua. Antolamendua eta Funtzionamendua.
13. artikulua. Ohiko bilkurak.
 14. artikulua. Ezohiko bilkurak.
 15. artikulua. Bileretako asistentzia.
 16. artikulua. Bileren antolaketa.
 17. artikulua. Informatzeko betebeharra.
 18. artikulua. Hizkuntzen erabilera Kontseiluan.
 19. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.

ZIOEN AZALPENA

Gobernagarritasun berriranzko bidean demokraziaren funtzionamendua aberasteko aukera eman duten parte-hartze zuzeneko moduek lotura estua dute XXI. mendeko gizartearen bilakaerarekin. Tokiko demokrazia, eta demokrazia oro har, ez da aldaezina. Udalaren papera eta funtzioak errealitatearekin batera bilakatu dira: bere garaian egokiak ziren konponbideak eta metodologiak berrikusi dira eta, beharrezkoa izan denean, gizarteak izandako bilakaeraren arabera egokitu. Eskatzen da informazio gehiago, parte-hartze gehiago eta gardentasun handiagoa izatea erabaki politikoak hartzeko prozesuan.

Illo horretan, tokiko demokraziaren kalitatea hobetzeko eta herriko lidergoan eragile sozial eta ekonomikoak inplikatze helburua ageri da planteamendu berritzaileekin demokrazia parte-hartzailea indartzeko konpromisoa duten Europako hiriburuetan.

Desberdintasunez haratago, udalerrietako hainbat ardura komunak dira. Alde batetik, udalak prest daude gizartearen kohesioaren alde lanean jarduteko ardura beren gain hartzeko eta, bestetik, herritarren eta tokiko gobernuaren arteko harremanak eta horien parte-hartzea hobetu nahi dute, bereziki erabaki garrantzitsuetan.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da aztertzea herritarrek tokiko bitzita publikoko gai garrantzitsuetan duten parte-hartzea, zeren Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 1.1 artikuluan arabera, udalerririk dira herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bidea, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz erakundetu eta kudeatzen dituzte.

Bestalde, 1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoak onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 9.e artikuluan adierazten du botere publikoek beren eskumenen baitan «Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko dutela».

Horrez gain, Tokiko Gobernu Modernizatzeko 57/2003 Legearekin eta gehienbat Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin, parte hartzeko moduak eta tresnak egokitu

egin behar dira geroz eta konplexuagoa, sektorizatuagoa den gizartera, udalerria indartzeko eta aurrera eramateko ahaleginak eragile publiko eta pribatuen inplikazioaren, koordinazioaren eta ekarpenaren emaitza izan behar baitu.

Gizarte zibileko erakunde, kolektibo, eragile eta elkarteak funtsezkoak dira kultura demokratikoa aberasteko eta parte-hartzearen akuilu izan behar dute.

Ildo horretan, Errenteriako udalak, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa denez eta jakitun denez garrantzitsua dela demokrazia parte-hartzailea bultzatzea, besteak beste, sektore bakoitzeko aholku-kontseiluen bidez bultzatzen du gizartearen partaidetza.

Aipatutakoaren arabera, beharrezkoa da, beraz, ezartzea eta zehaztea Aholku Kontseilu honen osaera, elkarbizitza eta udal gizarte ekintzako gaietan parte-hartzeko, ordezkartzeko, topaketako eta proposamenerako tresna izan dadin. Era berean, antolaketaren oinarritzko arauak ezarri behar dira, kontsultarako erakundeak ondo funtziona dezan eta agindutako funtzioak eraginkortasunez bete ditzan.

ATARIKOAK

1. artikulua. Eratzea eta izaera.

1. Araudi honen bidez eratzen da Errenteriako Udaleko Elkarbizitzarako eta Gizarte Ekintzako aholku kontseilua, herritarren parte-hartzerako kide anitzeko kontsulta-organo gisa, pertsonen arteko elkarbizitzan eta gizarte zerbitzuetan eragina duten politika-lerro edo ekintzen inguruko informazioa, proposamena, azterketa, eztabaida, aholkularitza, jarraipena eta ebaluazioa burutzeko. Helburua da laguntzea Errenterian bizi diren pertsonen kohesio soziala, autonomia eta ongizatea, sustapeneko, prebentzioko eta sentsibilizazioko funtzioa burututa prestazioen eta zerbitzuen bidez, eta aurre egitea behar edo baliabide faltei eta hainbat talderen inguruko aurreiritziri, estereotipo edota diskriminazioei.

2. Aholku Kontseilu honetan onartutako proposamenak ez dira lotesleak izango Udalarentzat.

3. Bere jardunaren baitan aurkeztutako proposamen edo alternatibak onartzen ez baditu Udalak, organo eskudunak arrazoitu beharko du bere ustez zergatik ez den egoki horiek gauzatzea.

2. artikulua. Helburua.

Aholku Kontseilu honen helburuak dira:

— Kontsulta organo bezala, elkarbizitzaren eta gizarte ekintzaren esparruko udal politika orientatzea.

— Udalak aniztasunean, elkarbizitzan eta gizarte ekintzan duen udal politikaren helburu orokor eta zehatzak ezartzeko prozesuan parte hartzea.

— Udalaren, kontseiluko elkarten eta pertsonen ekimen zehatzak azaltzeko foro bilakatzea, beraien arteko ezagutza bultzatzeko eta beraien arteko elkarlan berriak sustatzeko edo /eta dagoen koordinazioan sakontzek

3. artikulua. Funtzioak.

Aholku Kontseilu honen funtzioak ondorengoak dira:

a) Elkarbizitza eta gizarte-ekintzako ekintzen azterketan, burutzean eta jarraipenean parte hartzea; aldi berean aurrekontuaren egitasmoa aztertu eta proposamenak egingo ditu. Gaiarekin

lotuta dauden araudi eta erregelamenduen prestaketan ere parte hartuko du.

- b) Elkarbizitzarekin eta gizarte-ekintzarekin lotuta dauden inizatiben eta proiektu berrien gune izatea.
- c) Arloarekin harremana duen gairen bat sakonago aztertzeko beharra ikusten bada, Kontseiluarekin lotuta egongo diren lan-batzordeak eratzea erabakitzea.
- d) Iradokizunak egitea eta gomendioak proposatzea behar bezala aurrera egin ez duten ekintza edo proiektuak zuzentzeko neurrien inguruan.
- e) Kontseiluaren jardueraren ildo nagusiak ezarriko dira eta barnerako beharrezko arauak sortuko dira Araudiaren kontrakoa ez esateko.
- f) Errenteriako gizarte egoera aztertzea eta Aniztasuna eta Gizarte Ongizate Saileko jardueraren jakitun izatea, jarraipena egitea eta hura balioztatzea.
- g) Interesekoak diren bestelako kontseiluekin, organoekin dota egiturekin koordinatzea.

I. TITULUA

KONTSEILUAREN ORGANOAK

4. artikulua. Osaera.

Aholku Kontseilu honek organo hauek izango ditu:

- a) Kontseiluaren Batzarra.
- b) Lehendakaritza.
- c) Idazkaritza.
- d) Lan Batzordeak.

5. artikulua. Kontseiluaren Batzarra: osaera eta izendapenak.

Batzarra Aholku Kontseiluaren organo gorena da.

Kontseiluko kideak izendatzean gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin bermatuko da; hau da, sexu bakoitzak % 40ko ordezkari-tza izango du gutxienez.

Honela osatuko da:

1) Eskubide osoko kideak (hitza eta botoa dutenak):

- a) Lehendakaria: alkatea. Dena den, eskuordetu ahal izango du egoki deritzon zinegotzi-ordezkariekin.

Udala ahaleginduko da lehendakari kargurako izendatutako pertsonak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezan.

b) Kideak:

— Udal ordezkari-tza instituzionala: Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duen zinegotzia. Udalean dauden udal talde bakoitzeko zinegotzi bana.

Udala ahaleginduko da kontseiluan parte hartuko duten zinegotziek bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

— Aniztasunaren eta Gizarte-ekintzaren arloan herriko ekintzetan jarduten diren herritarren elkarteetako ordezkari bana, baldin eta kontseilu honetan parte hartzeko borondatea adierazi badute.

Elkarte bakoitzak ahalegina egin beharko du bere ordezkariak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

Ordezkarria eta horren ordezkia entitateak berak proposatuko ditu. Pertsona batek ezin izango ditu entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Bozerramaile Batzordeak gehiengo soiluz proposatuta alkatearen (edo zinegotzi delegatuaren) dekretu bidez izendatuko dira.

2) Hitzak bai, baina botorik ez duten kideak:

a) Lehendakariak gonbidatuta, Gizarte Zerbitzuetako edota aniztasuneko udal teknikariak, jorratu beharreko gaiaren arabera egoki bada.

b) Idazkaria: Udal funtzionario bat edo horrek eskuordetzen duen profesionala; eskuordetzea kultur aniztasuneko teknikariak edota gizarte zerbitzuetako teknikari batek egingo luke.

Funtzionario edo profesional horiek bi hizkuntza ofizialak menderatu beharko dituzte.

6. artikulua. Karguak berritzea.

Aholku Kontseiluko kide guztiak lau urtero berrituko dira, udal hauteskundeak egiten direnean, udalbatza berria eratzen denetik gehienez ere sei hilabetera.

7. artikulua. Kide izaera galtzea.

Aholku Kontseiluko kideek kide izateari utziko diote kasu hauetan:

a) Agintaldia amaitzea.

b) Uko egitea.

c) Heriotza.

d) Ordezkatzen duen elkarte edo erakundea desegitea.

e) Elkarrearen Estatutuetan izendatu izanaren inguruko funtsezko aldaketak emanez gero.

f) Izendapena eragin zuten irizpideak aldatzea elkarrearen estatutuetan.

g) Ordezkatzen duen elkartearen uztea.

8. artikulua. Hutsik geratutako lekuak.

Norbaiten lekua hutsik geratzen denean, ahal bada, 5b) artikuluan aurreikusitako izendapenaren bidez beteko da, betiere proposatutako kide berriak betetzen baditu artikulua horretan ezarritako baldintzak, eta karguan jardungo da kargua hutsik utzi duenaren agintaldia amaitu arte.

9. artikulua. Lehendakariaren funtzioak.

- a) Kontseilua ordezkatzea.
- b) Ohiko eta ezohiko bilerak deitzea.
- c) Kontseiluko kideak eta, hala badagokio, horien ordezekoak izendatzea eta kargutik kentzea, ordezkatzeko dituzten herritar erakundeen edo udal talde politikoen proposamenari jarraiki.
- d) Egoki edo beharrezko baderitzo, Udaleko edo kanpoko teknikariak gonbidatzea.
- e) Gai-zerrenda osatuko du.
- f) Bileren burua izatea eta bilerak moderatzea. Bozketetan berdinketak izaten direnean bere kalitateko botoaren bidez erabakitzea.
- g) Hiritarren parte-hartzea bermatzea.
- h) Udal gobernuaren organoei helaraztea Kontseiluaren ekimenak, txostenak eta proposamenak, ondoren tramitatuak, eta burutzen direla ziurtatzea. Kontseiluaren eta udal gobernu eta kudeaketa organoen arteko harremana koordinatzea, hala nola Udaleko kontseilu desberdinen arteko koordinazioa sustatzea, informazioa trukatzeko eta, beharrezkoa denean, neurri eta ekintza bateratuak proposatzea.
- i) Lehendakariaren karguari lotutako bestelako funtzioak betetzea.

10. artikulua. Idazkariaren funtzioak.

Idazkariari dagozkio:

- a) Bileretara bertaratzea.
- b) Gai-zerrenda prestatzea.
- c) Bileren akta jasotzea.
- d) Deialdiak, gai-zerrendak eta Kontseiluak sortzen duen dokumentazioa bidaltzea. Deialdi hau Kontseiluko kide guztiei posta elektronikoki bidez soilik jakinaraziko zaie bakoitzak adierazitako helbidean.
- e) Kontseiluaren Batzarraren erabakiak tramitatzea, lehendakariak emandako jarraibideen arabera.
- f) Idazkari egoerari lotutako bestelako funtzioak burutzea.

11. artikulua. Lan Batzordeak.

1. Agindutako funtzioak hobe prestatzeko beharrezkoa bada, lan batzordeak eratu ahal izango dira gai zehatzak berariaz tratatzeko, betiere Kontseiluaren Batzarrak egoki jotzen badu.
2. Osaera, izendapena eta funtzionamendua Kontseiluaren Batzarrak erabakiko ditu.
3. Lehendakariak, bere kabuz edo batzordekideek hala eskatuta, udaleko nahiz udalaz kanpoko laguntza tekniko eskatu ahal izango du, beharrezko edo egoki baderitzo.

4. Lan batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Aholku Kontseiluari.

12. artikulua. Aholku Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.

1. Aholku Kontseiluko kideen eskubideak izango dira hauek:

a) Udal Gobernuako organo eskudunek hartutako erabakien Informazioa eskatzea eta informatuak izatea, betiere Kontseiluaren eskumeneko gaiekin eta bere funtzioekin loturik badago.

b) Kontseiluari proposamenak egitea; aktan jasoko dira eta Kontseiluak aztertuko ditu.

c) Kontseiluaren barnean osatuko den edozein talde edo lan batzordetako kide izatea.

d) Bileretako eztabaidetan parte hartzea.

e) Gai-zerrendan sartutako gaiak osatzeko aurrekariak, informazioa edo dokumentazioa eskatzea Kontseiluko idazkariaren bitartez.

f) Egoki bada, Hala balegokio, boto eskubidea baliatu eta boto partikularra ematea arrazoiak azalduta.

g) Galde-eskaerak egitea.

h) Batzarkide izaerari lotutako bestelako funtzioak gauzatzea.

2. Kontseiluko kideen betebeharrak izango dira hauek:

a) Egiten diren bileretara joatea.

b) Jakinaraztea Udalari haiekin harremanetan jartzeko emandako datuak aldatu direla.

c) Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatzea eta betetzea.

d) Elkarteen kasuan, Udalari jakinaraztea euren Estatutuetan izandako aldaketak, Udalak azter dezan aldaketa horiek izendapenetan eraginik duten.

e) Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebeharrak guztiak.

3. Batzarkideek ezingo dute izan ordezkatzeko funtziorik. Ordezkaritza lehendakariari soilik dagokio, kasu jakin bakoitzerako organoak berak arau baten bidez espresuki edo baliozko akordio baten bidez eman ezean.

II. TITULUA

ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

13. artikulua. Ohiko bilerak.

1. Aholku Kontseiluak urtean 4 ohiko bilera egingo ditu. Bilera bakoitzaren data Kontseiluak berak ezarriko du.

2. Ohiko bileretarako deialdia egin beharko da, gutxienez, bost lanegun lehenago. Deialdiarekin batera bileraren gai-zerrenda eta aurreko aktaren zirriborroa bidaliko dira.

3. Landu beharreko gaien eskaerak Kontseiluko idazkariak jasoko ditu, deialdia egin baino hamar lehenago.

4. Kontseiluko lehendakariak, bere kabuz edo edozein partaidek eskatuta, proposatu ahal izango du Gai-zerrendan sartu gabeko edozein gai sartzea, presazko izaerarekin eta bilera hasi aurretik. Kontseiluko plenoak berretsi beharko du puntu berria Gai-zerrendan sartzeko erabakia.

5. Lehendakariak, bere kabuz edo Kontseiluko kideen laurdenak eskatuta, udaleko nahiz udalaz kanpoko laguntza teknikoa eskatu ahal izango du, beharrezko edo egoki baderitzo.

14. artikulua. Ezohiko bilerak.

1. Lehendakariak beharrezkotzat joz gero, ezohiko bilerak egin ahal izango dira.

2. Era berean, ohiz kanpoko bilerak egingo dira eskubide osoko kideen erdiak hala eskatuz gero. Horrelakoetan, gehienez ere 15 egun naturaleko epean gauzatuko dira bilera horiek.

3. Bilera deialdia, gai-zerrendarekin batera, bidaliko da, gutxienez, aurreikusitako data baino bost lanegun lehenago.

4. Bilkuran daudenean, aurrez aurre edo urrunetik, idazkariak eta kide anitzeko organoko eskubide osoko kide guztiak edo horiek ordeztan dituzten pertsonak kide anitzeko organo gisa eratu ahal izango dira, baliozki, aldeztu aurretik deialdirik egin gabe, kide guztiek hori erabakitzen badute, bai eta bilerak eta deliberazioak egin edo erabakiak hartu ere.

15. artikulua. Bileretara bertaratzea.

Kontseilura bertaratu ahal izango dute, lehendakariak eskatuta, beharrezkotzat jotzen diren udal teknikariek, gaietan ospea duten pertsonak edo bileretan eztabaidatuko diren gaietako adituek. Beharrezkoa ikusiz gero, udal-organotako eta elkarteetako ordezkariak ere joan ahal izango dira. Guztiak ere bileretara joango dira eta ahotsa izango dute, baina botorik ez.

Halaber, Kontseiluko bileretara joan ahal izango dira Lehendakariari aurretik eskatzen dioten guztiak. Hala ere, ez dira inoren ordezkari izango, eta ahotsa izango dute, baina botorik ez.

16. artikulua. Bileren antolaketa.

1. Aholku Kontseilua lehen deialdian osatutzat joko da bilerara bertaratzen direnean, gutxienez, eskubide osoko kideen erdia baino bat gehiago. Bigarren deialdian, ordea, ordu erdi geroago, osatutzat joko da lehendakaria eta eskubide osoko bi kiderekin. Dena den, derrigorrezkoa izango da bertan izatea lehendakaria, edota bere funtzioetan aritzen dena, eta idazkaria.

2. Sustatuko da erabakiak adostasunez hartzen laguntzeko beharrezkoak diren elkarrizketak eta eztabaidak izatea. Hala ere, desadostasunik izanez gero, proposamenak gehiengo soilez onartuko dira.

Boto-berdinketa emanez gero, berriro bozkatuko da. Hala ere, berdinketa mantentzen bada, adostasuna lortzeko ahalegina egingo da. Hori lortu ezean, eta azken aukera gisa, kalitatezko botoa erabiliko du lehendakariak.

3. Gai-zerrendako gaien inguruan soilik hartu ahal izango dira erabakiak. Dena den, salbuetsita geratuko da eskubide osoko partaideen gehiengo soilez premiazkotzat jo eta gai-zerrendan sartu den beste edozein gai, araudi honen 13.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

4. Idazkariak bilera bakoitzeko akta jasoko du. Bertan zehaztuko dira bertaratutakoak, eztabaiden alderdi nagusiak eta hartutako akordioen edukia, eta, era berean, Udal Araudi Organikoak 69. artikuluan zehazten diren gainerako gorabeherak.

5. Aktak hurrengo bileran onartuko dira. Dena den, hartutako erabaki zehatzen egiaztagiriak eman ahal izango ditu idazkariak, nahiz eta akta aurrerago onartzeko geratu. Egiaztagiriak akta onartu aurretik egiten direnean, gorabehera hori espresuki jaso beharko da.

6. Kontseiluak hurrengo urteko bilera egutegia adostuko du urte bukaerako saioan eta urteko egutegi hori eskuragarri egongo da Udalaren web orrian eta posta elektronikoz bidaliko zaie Aholku Kontseiluko kideei.

17. artikulua. Informatzeko betebeharra.

Kontseiluak eskatzen dituen informazio eskariak sail/azpisail/udal zerbitzuek erantzun beharko dituzte. 30 eguneko epea izango dute erantzuteko, txosten eskaera jasotzen denetik kontaktzen hasita. Erantzuna lehendakariaren edo idazkariaren bidez gauzatuko da, gehienez ere eskaera onartu zenetik kontaktzeko hasita 10 eguneko epean. Eskaturiko informazioa Kontseiluko partaide guztiei jakinaraziko zaie eta horren berri emango da hurrengo ohiko bileran, nahiz eta ezohiko bilera bat deitu ahal izango den gaia bertan eztabaidatu eta landu dadin.

18. artikulua. Hizkuntzen erabilera Kontseiluan.

Aholku Kontseiluak, Errenteriarako hizkuntza-normalizazioaren garrantzi estrategikoaren ildoan, Errenteriako Udalak eta legeriak ezarritako hizkuntza-irizpideak errespetatuko ditu bere jardunean eta funtzionamenduan.

19. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.

Araudi honetan aurreikusi gabeko guztian kontuan hartuko da Udal Araudi Organikoan ezarritakoa, hala nola Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak edo horien ordeztu onartzen direnek xedatutakoa.

Errenteria, 2019ko ekainaren 6a.—Jaione Karrikiri Garaño, alkateordea. (3848)